

ALDURA

Muino txiki bikaina

Argazkiak: LETXEZARRAGA



Wikiloc-en
topatuko duzu
ibilaldi hau

GnatKonekta



Sarbidea

Astigarragako bentako gaineratik – Astigarragatik zein Oiartzundik iritsi daiteke bertara, GI-2132 errepidean barrena, edo Errenteriatik ere bai, GI-3671 errepidea hartuta–, Aldura Gunea Aldea bidearen amaieran Susperregi jatetxe-merendero sonatura iritsiko gara, Idoiaga muinoan.

Zailtasuna eta errekerimenduak

Ibilbide honek 5,6 km ditu guztira, eta ez du ageri nabarmentzeko

moduko zailtasunik. Halaber, ez du eskatzen ekipamendu berezirik, mendi ibilietarako oinetako eta arropa egokiak baino ez. Komeni da ura eta elikagai arinen bat eramatea. Halaber, hartu ahal dela telefono mugikorra aldean, ezer gertatuko balitz ere.

Deskribapen laburra

Ibilbide osoa Aldura mendiaren inguruan igarotzen da, Aiako Harria parke naturalean inskribaturiko eta Errenteriako udal mugarteari

dagozkion lurretan. Basoko pistetan eta zelaietan barrena ibiliko gara, eta Aldura gainera igoko (541 m); balkoi ikusgarri horretatik buelta guztian ikusten diren parajeek dimentsio egiaz arranditsua hartzen dute.

Garai bateko pagadiak, espezie exotikoz jantzitako baso txikiak, artaldeak, mendizaleak eta txangozaleak topatuko ditugu mendi bideotan. Zori gutxi-asko onarekin, makina bat moldekatze eta esku-hartze egin dituzte historiaurreko garai urrunetatik gizatiarturiko eremu honetan, Aizpitarte muinoan ageri diren aztarnategi arkeologikoez erakusten diguten moduan. Nolanahi ere den, ekologia, paisaia eta kultura neurritasun pribilegiatuz uztartzen dituen ingurumaria dugu, non aurreko guztia iragana baita.



1 de 8

Gnaturaldia
Konekta



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

A iako Harria parke naturala naturagune babestu deklaratu zuten 1995ean. Gipuzkoako ipar-ekialdeko muturrean dago, eta 6.900 hektarea pasatxo ditu. Donostialdean, Oarsoaldean eta Bidasoaldean dago, Donostiako, Hernaniko, Errenteriako, Oiartzungo eta Irungo udal mugarteetan. Zirkunskripzio osoa Kontserbazio Eremu Berezizat hartua da, Natura 2000 sarearen barruan (biodibertsitatea kontserbatzeko Europar Batasuneko eremuen sarea).

Ibilbidearen eta bertan topatzen diren elementu naturalen eta kulturalen deskribapena


Oharra: WP hizkiekin (ingeleseko waypoint-etik eratorriak) adierazten dira ibilbideko gako-puntuak, hala bidegurutze bat dagoelako, nola intereseko kokagunea delako. Eskuineko zutabeetan jaso dira kokaleku horien argazkiak eta azalpenak.

Idoiaga muinoan zabalduko (WP 1) aparkalekuko plataformatik, zeina Susperregi jatetxe-merenderoaren pare-parean baitago, han aurrean irekitzen den pistari helduko diogu. Bideari ekin eta berehalaxe ikusiko dugu bide hori debekaturik

Waypoint (WP)



1. Hasiera



ALDURA

dagoela baimendu gabeko ibilgailuentzat, langa batekin itxita. Eukaliptoen birpopulaketa baten paretik igaroko gara, zeina pago landareekin basoberriturik baitago.

Aipaturiko langa hori igaro ondoren –kontu hartuko dugu zegoen bezala uzteko–, aldapatxo bat igotzen hasiko gara, zeina labar-antzeko hegal nabarmenean igarotzen baita. Birlandaturako eta berragerturiko basa espeziez beteriko baso txikietan barrena joango gara tipi-tapa: pagoak, haritzak, gaztainondoak, urkiak eta abar izango ditugu inguruan, garai bateko paisaia begetalaren lekuko. Ondoren, eskuinetara ematen duen desbideratze bat utzi (WP 2), eta, handik pixka batera, Malbazar muinora iritsiko gara (WP 3) lau haizetara irekita eta Añarbeko zirkuaren eta bertako urtegiaren gainean.

Puntu horretan, ezkerretara hartuko dugu. Handik pixka batera, Malbazarko jolas eremutik igaroko gara. Eremu horretan, mahaiaik daude, eserleku eta guzti, hazten ari diren pagoen artean. Era berean, aterpetxe-txabola bat ere badago, pago inausi zaharren artean babesturik.

Pista garbi ageri zaigu, bide zorua estratu arbeltsuetan sigi-saga dela. Berehalako batean, eskuinetara (WP 4) eta ezkerretara bide adar bana utzi ostean, Otsarte muinora iritsiko gara. Une horretan, dakargun pista utzi eta ezkerretara irekitzen denari helduko diogu (WP 5), eta, berehalaxe, bitan egin bezain pronto, erdiko bidezidorretik aurrera segituko dugu.

Bidezidorra modu nahasezinean markaturik dago laritzez osaturiko baso baten artean trazatutako

suebaki batean, eta aldapatxo labur baino malkartsu bat hasten da (bakarra ibilbide osoan). Pazientziarekin eta lasai igo ostean, Aldura gain belartsuan azalduko gara (541 m), zeina mendiko postontzi txiki batekin seinaleztatuta baitago (aldapa hori arindu nahi izanez gero, bidezidorraren eskuinetarantz irteten den pista hartu daiteke, eta malkar txikiagoan gora



joango gara, harik eta mendiaren ekialdeko bizkarrera iritsi arte (gailurretik 200 m ingurura). Noranahi begiratuta ere, ikuspegi zoragarriak izango ditugu. Merezki zuen ahaleginak: itsasertza, Matxixako lur muturra, Donostialdea, Oarsoaldea, Igeldo mendia, Jaizkibel, Aiako Harria, Larrun, Oiartzun, Añarbe-Urdaburu, Ezkurra eta Leitza, Adarramendi-Mandoegi, Igoin-Akola, Hernio, Izarraitz...

Minutu batzuetan gozatu ondoren, orain urte gutxi botatako laritz

Waypoint (WP)



2. Segi aurrera, eskuineko bidea saihestuz



3. Ezkerreko bidea hartu



4. Segi aurrera, ezker-eskuin agertzen diren bideak saihestuz



5. Ezkerreko bidea hartu eta ondoren erdikoa, mendian gora

pinudiaren tokian irtendako belardiaren gainean tipi-tapa oinez, isurialdeen banalerroari jarraituko diogu pagadiaren ertzetik barrena. Igelak eta halako beste hainbat anfibio ugaltzeko naturalizatutako bi putzu artifizialen parean, Otsarte muinotik igarotzen



ALDURA

den pistaren trazatura iritsiko gara (pista hori ordeko aukera gisa gomendatu dugu lehen, ibilbidea samurrago egiteko).

Ez da harritzekoa artalde latxaren bat topatzea, baita behorak ere, beren moxal eta guzti; orobat, ohikoak dira betizu erdi basatiak ere, paraje hauetan larrean. Halaber, larreak harrotuta egoten dira maiz, basurdeak gaez elikagai bila uxarrean aritu ostean. Basotik



A beltzaintza estentsiboa izan da Gipuzkoako Erabilgarritasun Publikoko Mendien erabilera tradizioaletako bat, eta hala jarraitzen du izaten egun ere, Añarbe inguru honetan gertatzen den bezalaxe. Ingurumari hauetan, batez ere ardi latxak, haragitarako abelburuak eta zaldiak aritzen dira larrean. Abere horiek guztiak ohiturarik daude mendietara, eta, gehiegitxo ez badaude, belardien, sasiarten eta basoen arteko orekari eusten diote.

Mendiko abelburuek eragin zuzena dute faunaren gainean ere. Istripuz edo gaitzen batek jota mendian hiltzen diren buruen gorpuzkiak espezie nekrofaqoren elikagai izaten dira -horien artean, sai arreak, bitarteko horren premiazkora orain mendeak egokituak-.

kanpora, zorte pixka batekin, sai arreen multzoren bat ere ikusiko dugu, haiek ere jan bila.

Pagadiaren ertzean trazaturiko pista aurrera eginda (WP 6), eskuinetara irekitzen den gurdi bideak Pertsebel irtengune zabalera ematen du (528 m), muino bikaina, garai bateko mugarri geodesiko batez hornitua.

Laritez eta pagadiz osaturiko baso txiki batean tartetxo bat zeharkatuz, garo leku batek estaliriko lursail ireki batera igaroko gara. Bideak Pertsebel iparraldeko muturraren gailurrean bertan trazatutako pista baten arrastoari jarraitzen dio;



Waypoint (WP)



6. Segi aurrera



ALDURA

Inguru hau natura parke gisa sailkatu baldin badago ere, foru ordenantzek baimentzen eta arautzen dute ehiza bertan: hori horrela, praktika hori baimenduta dagoen aldietan, ehiztariak topatu ahal izango ditugu bidean, dela beren pase postu tradizionaletan, dela txakurrekin batera hara eta hona oinez, oilagor preziatuak noiz harrapatuko (azai edo pekada ere deitzen zaie oilagorrei).

Elurtegiak edo izoztegiak eskuarki hegal baten ezpondan zulatutako putzu hustubidedunak dira, antzina-antzinatik erabiliak negu partean bildutako elurra gordetzeko. Eskuarki harlangaitz hormaz estalita egoten ziren, eta sarbideak izaten zituzten elurra eta langileak sartzeko; egurrezko edo harrizko egitura izan ohi zuten, eta adarrez estaltzen ziren.

Waypoint (WP)



7. Ezkerrerko bidea hartu, suebakitik doana

ezkerretan, laritz birpopulaketa itxi-itxiak izango ditugu, eta eskuinetan, berriz, Douglas izeia, baita ehizarako postu ugari ere.

Berehalaxe, ehiza postu bat zaintzen duten hainbat gorosti bakartirekin errematatutako irtengune bat igaro ondoren, egundoko ikuspegia izango dugu: hondoan, Txingudiko badia eta Igantziko irtengunearen siluetan zorrotza. Hala, aldapa nabarmen batean behera abiatuko gara, suebakitik barrena.

Laritz basoa ezkerretan dugula aurrera eginez, eskuinetan dugun izeidia laster amaitu eta laritz pinuak agertuko zaizkigu, eta, gurdi bide hori koniferen masa batean sartzen den puntuan (WP 7), trazatu hori utzi eta suebakian markaturik jarraitzen duen bidezidorretik aurrera egingo dugu, isurialdeen banalerroan bertan.

Handik pixka bat beherantz eginda, bidetik ezkerretara metro batzuetara, suebakian bilduriko pago zahar batzuen erpinean eta aparteko haritz bakarti baten



Elurteen ostean jasotzen zuten elurra, eta leretan eramaten zuten izoztegiak; barneratu ondoren, prentsatu egiten zuten, harik eta izotz bihurtu arte. Ondoren, hostoz, gariz edo belar onduz estaltzen zuten, geruza uniformeak eginez. Beharra sortzen zenean, geruza horiek bloketan ebakitzen ziren, eta zaldiekin eramaten zituzten gaez herriguneetara, han merkaturatzeko.

XIX. mendearen amaieratik aurrera izotza modu industrialean sortzen hasi ziren, eta, horrekin, zaharkiturik geratu ziren izoztegiak: erabat abandonaturik eta ahazturik.

Erabilera terapeutikoak ez ezik (analgesiko eta antiinflamatorio gisa), sukaldaritza-prestakinetarako erabiltzen ziren batez ere -garai hartan luxuzkoak-, hala nola izozkiak, edari freskagarriak eta abar egiteko.



ALDURA

kontra-kontran, merezi du bisitatxo bat egitea izoztegi ikusgarri bat izandakoaren obrari.

Berriri martxari helduta, bideak suebakian behera jarraituko du. Alde batean, pagadiaren paretik igaroko gara, eta beherako gari leku batetik ere bai; beste aldean, berriz, laritz pinudi bat izango dugu, harik eta ebakitzen duen pista batera iritsi arte (WP 8). Igantzi muinoan kokatuko gara, zeina saroi ospetsu izan baitzen mendeetan



zehar, oraindik ere Erdiko mugarrak ederki asko erakusten duen moduan (gauden tokitik ehun metro ingurura kokaturik).

Muinora bertara iristeko eta garai bateko nortasun lekukotza hori miresteko, metro gutxira bi bidezidor ikusiko ditugu, eskuineko aldean erramuak, gurbitzak, hurritzak, sasiak eta halakoak ditugula nahas-mahas, ibilgailuei muinorako bidea itxiz. Bi horietan edozeini helduz, aurrekoen antzeko beste putzu artifizial batetik igaro eta berehalaxe, oso aspaldiko mugarri horren aurria ikusiko dugu, irtengune txiki baten alboan. Miresgarria da gain honetatik dugun panoramika: itsasertza, Pasaia eta Errenteriako herriguneak, Ullia eta Jaizkibel mendilerroak, Aiako Harria, San Anton, Larrun, Oiartzungo mendiak



Saroiak lurzati indibidualizatu mota bat dira. Euskal Herrian, oinplano zirkularreko eta hainbat erradiotako barruti forma hartu zuten, eta erdigunean erreferentzia gisa ipinitako harri batek eta kanpoaldeko mugetan ipinitako zenbait mugarrak definitzen zuten.

Eskuarki, auzo lurretan izaten ziren, eta inguruan ez bezalako arauak izaten zituzten. Uste da abeltzaintza aprobetxamendua arautzeko sortu zirela entitateok; hala, haien titulartasuna edo ustiatzeko eskubidea zuenak haietan eduki zezakeen ganadua gauetan. Gainerakoek, berriz, jatorrizko tegietara bueltatu behar zuten. Denboraren poderioz, saroiak auzo lurren barruan espazioak indibidualizatzeko modu bilakatu ziren, nahiz eta beste aprobetxamendu batzuetarako izan, hala nola basorako. Beste kasu askotan, baserrien jatorri izan ziren. Lur horietako batzuek oraindik ere eusten diote jatorrizko formari, eta paisaian ikus daitezke, landaredi desberdina baitute ingurukoarekin alderatuta.



Waypoint (WP)



8. Bidegurutzean, ezkerreko bidea hartu



ALDURA

(Arritxurieta, Zaldin, Basate, Bianditz, Munanier, Zaria).

Berriro ere pistara bueltaturik, gentozen bidezidorrak eta orain kokaturik gauden pistak bat egiten duten tokitik ezkerretara hartuko dugu, eta, garo leku irten baten parean dagoen tartetxo batetik igaroz, pagadiaren barneko masa laiotzean sartuko gara. Hainbat laritz unadarekin tartekaturik, enbor handiko pagadi honek mirariz eutsi die denboraren joanarekin izaniko aldaketa sozioekonomikoen osteko paisaia aldaketei.


Baso masa autoktono paregabe hau enborretatik sortua da, eta pisu ekonomiko handia izan zuen mendeetan zehar; intentsitate handiz aprobetxatu dute, dela zuzenean, egur ikatza egiteko egurra aterata, dela zeharka, pagatxekin abereak elikatuz.

Baso eremu honek ederki asko erakusten du zer-nolako oreka izan duten abeltzainek, ikazkinek, olagizonak, egurgileek eta artzainek, besteak beste, guztiek partekatzen zuten naturarekin. Ingurumari hau altxor itzela da desagerturiko ekologiararen, paisaiaren eta kulturaren aldetik duen balioagatik.

Tarteka-marteka orbelak itxi-itxi ezkutaturik, pista erabat ebakita dago mendi hegalean behera doan pendizean. Igantzi eta Artamugarri osinen buruak igarotzen ditu, eta Aldura baserriko larre irekien parera ematen du amaieran.

Aurrera joango gara, haritz ilara batek eta hurritz enborrek mugaturiko Belardi horien parean.

Goazela ezkerretan, esandako belardiaren itxuraren erpinen parean, atentzioa emango digute ezpondan ageri diren bi sakongunek. Garai bateko bi kare labe dira. Lehendabizikoaren aurretik hurritz enbor handi bat dago, eta beiratuta dauka barrualdea. Bigarrenari dagokionez, berriz, indusketa baino ez da geratzen ikusgai.



Karea egiteko, apropos prestatutako labeetan egosten zuten kareharria. Teknika hori oso antzinakoa da, eta indarrean egon da XX. mendearen lehen herenean sartu bitarte guztian.

Kare labeek estalkirik gabeko barrika forma izaten zuten, eta aurrealdean aho bat edukitzen zuten erregaia bertatik sartzeko. Ezpondetan txertaturik eraikitzen zituzten, aurrez hutsartea hustu ondoren, eta, gero, lehorrean landutako hondar eta arbel harriz estaltzen zituzten barrutik hormak -hau da, argamasarik gabe-. Barneko oinarrian, zulo bat ipintzen zuten, hautsontzi modura, ahoaren petik kanpoaldearekin konektaturik.

Egostera bideratzen zituzten kareharriak bata bestearen gainean ipintzen ziren barruan, kupula faltsu bat eratuz, zeinak kargaren gainerakoari eusten baitzion behetik gora. Barnealdeko hutsartea sastraka lehorrez betetzen zen, eta, su eman ostean, hiruzpalau egunez piztuta egoten zen, aldian-aldian sasiz eta adarrez elikatuz. 800 eta 1000 graduko tenperaturak ere lortzen zituzten. Eskuratutako harri egosiak, deshidratatu ondoren kare bizi bilakaturik eta bolumen txikixeagoarekin, birrindu egiten ziren eta, erabileraren arabera, uretan sartuta «itzaltzen» zituzten. Antzina-antzinatik erabili izan da karea aglomeratzaila gisa morteroak egiteko. Baina makina bat bestelako erabilera ere izan du, etxean (izurri eta gaixotasun infekziosoen kontrako antiseptiko gisa), nekazaritzan (soroetarako ongarri gisa), baita industrian eta beste hainbatetan ere.



ALDURA

Aldura baserria igaro ondoren, lurrezko pista hormigoizko bihurtzen da. Bideari jarraituz, albo batean utziko dugu ezkerretara irekitzen den lehendabiziko desbideratzea, eta, handik pixka batera, hurrengo hartuko dugu, zeina azken norabide horretan bertan irekitzen baita, dibulgazio-panel baten ostean (WP 9). Poliki-poliki beherantz, inguruan landaredi oparoa duela igarotzen da bidea. Eskuinetara sortzen den lehen desbideratzea albo batera utzi, eta, handik berehalaxe, Antxuloko sakanaren buruaren sakonguneak gurutzatuko ditugu, pagoz jantziak.

Aurreraxeago (WP 10), eskuinetarantz behera jaisten den bideari jaramonik egin gabe, gora egiten duenari jarraituko diogu. Ibilbide horrek, basoak babesturik, tarte labur bat gainditzen du, harik eta bidegurutze batera iritsi arte. Azken bi bide horiek toki berera ematen badute ere, ezkerretarantz irekitzen denari helduko diogu: aldapatxo labur bat igo eta berriro jaitsi ostean, berehalako batean iritsiko gara abiatu garen aparkaleku plataformara.

Waypoint (WP)



9. Ezkerreko bidea hartu



10. Ezkerreko bidea hartu



Gogoratu mendia, basoa eta hondartzazaindu behar dituzula, errespetatu animalia eta landareak eta eraman sortutako zaborra etxera bueltan.



gipuzkoa.eus/eu/web/ingurumena/gnaturaldia/konekta

8 de 8

Gnaturaldia
konekta

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ingurumena eta Oribi
Hidraulikotasun Departamentua



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro